

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

188. zenbakia

Data 2006-10-03

22539 orria

4 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA

GFA - FISKALITATEA ETA FINANTZAK

Irailaren 25eko 847/2006 Foru Agindua, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuan onartutako zergabilketa erregelamenduaren barruan eskumena duten organoak zehazten dituena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEPARTAMENTUA

Irailaren 25eko 847/2006 FORU AGINDUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuan aipatutako organo eskudunak finkatzekoa.

2006ko irailaren 4an argitara eman zen lurralde historiko honetako ALDIZKARI OFIZIALEAN Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua.

Bere hitzaurrean bertan esaten denez, zergabilketa erregelamendu berria Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak ekarri duen eraberritze kontzeptualaren ondorioa da.

Horrela, onartutako erregelamendu berria aurrekoaren egituratik aldentzen da, lehen aipatutako arauak sartu dituen aldaketetara egokitzen delako eta orain arte arautu gabe zeuden prozedura berriak erregulatzen dituelako. Hala ere, artikuluetan organo zehatzik ez aipatzen saiatu da.

Eskumen arloko alderdiak ez arautzeko ahaleginaren arrazoa da malgutasun handiagoa lortu nahi izan dela antolakuntzak etorkizunean izan ditzaken aldaketen aurrean. Izan ere, gaurkoa bezalako Administrazio aktibo batean, horrek erraztu egingo du Foru Administrazioa gai izatea bere burua uneoro antolatzeko, halako moduz non egin den aukerak aurreikuspenen nolabaiteko egonkortasuna ziurtatuko baitu eskumen arloko gaiei dagokienez.

Guztiarekin ere, desiragarria da gauzak areago konkretatzea, organo eskuduna zehaztu gabe egoteak eragin negatiboa izan dezakeelako zergadunek beren eskubideak baliatzean edo beren obligazioak betetzean. Zehaztasun hori ekainaren 29ko 63/2004 Foru Dekretuak, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, emandako eskumenen indarrez dator ezarria.

Horiek horrela, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamendua onartzen duenak, amaierako xedapenean ematen dizkidan eskumenak erabiliz, ondoko hau,

XEDATU DUT

Artikulu bakarra. Foru Administrazioaren barruan zergabilketako organo eskudunak finkatzea.

Ekainaren 29ko 63/2004 Foru Dekretuak, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, xedatutakoari jarraikiz, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak bere artikuluetan aipatzen dituen organo eskudunak ondorengo hauek dira:

Lehena.

4.1.b) eta 4.3 artikuluetan araututa dauden egintza guztietan Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiari dagokio eskumena.

Bigarrenena.

10.4 artikuluko 1. paragrafoan, eta 14.2.c), 15.1, 16 eta 20.2 eta 3 artikuluetan adierazitako organo eskudunak Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiko Finantza Zerbitzua izango dira.

Hirugarrena.

Aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zorren ordainketa erraztearren 18. artikuluan araututako kobrantza iragarkiak egitea eta, orobat, 19. artikuluan jasotako egintzak burutzea Udal Zergen Zerbitzuari dagokio.

Laugarrena.

32. artikuluan araututako gauzen bidezko ordainketen kasuan prozedura tramitatzeako eskumena eta, orobat, artikuluko horretako 6.a) puntuko hirugarren paragrafoan eta 7.a) puntuko bigarren paragrafoan araututako berandutza interesak likidatzeko eskumena Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiko Unitate Teknikoari dagokio.

Bosgarrena.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiko Finantza Zerbitzuari dagokio Foru Diruzaintza kudeatzeko eskumena, 34. artikuluan arautzen den diru kontsignazioari dagokionez.

Seigarrena.

II. tituluaren I. kapituluko bigarren sekzioan araututako gerorapen eta zatikapenei dagokienez, organo eskuduna Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiko Unitate Teknikoa izango da, betiere foru dekretuak berak organo eskuduna beste bat dela ezartzen duenean izan ezik.

38.5 artikuluan eta 41. artikuluko laugarren paragrafoan aipatutako kasuetan badaezpadako neurriak hartu behar direnean, eta horiek eraginkorrak izan daitezen Erregistro Publikoan inskribatu beharra daudenean, Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiko Zergabilketa Unitatea izango da neurri horiek erregistroan gauzatzeko organo eskuduna.

Zergabilketa Unitatea eskuduna izango da, baita ere, 41. artikuluko seigarren paragrafoan jasotako kasuetan, betiere badaezpadako neurria ondasunak modu prebentiboz bahitzea bada eta bahitura Erregistro Publiko batean inskribatuta badago.

Zazpigarrena.

Ordaintzera behartutakoak eskatutako konpentsazioan (49. artikuluko arautuan) Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiko Unitate Teknikoa izango da organo eskuduna.

Entitate publikoen zorrak edo ordaintzeko borondatezko epea amaitua duten zorrak ofizioz konpentsatu behar direnean (50. eta 51.1 artikulukoak), Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiko Unitate Teknikoa izango da organo eskuduna.

51.2.b) artikuluan araututako kasuetan, likidazio berria egin behar duen kudeaketa zerbitzua izango da organo eskuduna.

Zortzigarrena.

Kontu korronte fiskala baimentzeko eskaerak tramitatzea eta kontu hori kudeatzea (II. tituluaren I. kapituluko laugarren sekzioan araututako prozedurak) Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiko Unitate Teknikoaren eskumena izango da.

Bederatzigarrena.

61., 62. eta 63. artikuluetan jasota dauden jarduketa guztiak egiteko organo eskuduna Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiko Zergabilketa Unitatea izango da.

Hamargarrena.

Lege aholkularitzako funtzioak beteko dituen organoa, II. tituluaren II. kapituluaren aipatua, Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiko Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzua izango da.

Hamaikagarrena.

65. artikuluan arautzen den kuoten bereizketa Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiko Zergabilketa Unitateari eskatu ahal izango zaio.

Zergabilketa Unitateak eskumena izango du, baita ere, aipatutako dekretuaren 66. artikuluan araututako hipoteka bereziaren eraketa exijitzeko.

Hamabigarrena.

III. tituluaren aipatzen den zergabilketa organoa edo organo eskuduna Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendaritza Nagusiko Zergabilketa Unitatea dela ulertuko da, honako salbuespenak eginda:

1. 85.3.a) artikuluan araututako gerorapen eskaera jasotzeko organo eskuduna zerga likidatu behar duen Zerbitzua edo Unitate Administrazioa izango da.

2. Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiko Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzuak izango ditu lege aholkularitzako funtzioak.

3. 125. artikuluan araututako diru kontsignazioa Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiko Finantza Zerbitzuan egingo da.

Hamahirugarrena.

103. artikuluan araututako besterentze mahaiak honako kideak izango ditu: Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiko Zergabilketa Unitateko burua, lehendakari jardungo duena, Kontuhartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuko langileen artean aukeratutako funtzionario bat, eta Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiko Zergabilketa Unitateko buruak Unitateko langileen artean aukeratutako funtzionario bat.

Mahaia balio osoz eratzeak gutxienez bi kide beharko dira, eta artikulua honetan aipatzen ez diren gainerako gaietarako, azaroaren 26ko 30/92 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, xedatutakoa aplikatuko da ordezko izaeraz.

Hamalagarrena.

IV. tituluaren aipatzen den zergabilketa organoa edo organo eskuduna Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendaritza Nagusiko Zergabilketa Unitatea dela ulertuko da, honako salbuespenak eginda:

Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiko Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzuak izango ditu lege aholkularitzako funtzioak.

Erantzukizunaren aitortzeak dagokionez, berau borondatez ordaintzeko epea amaitu aurretik aitortzen denean, likidazioak egiteko eskumena duten zerbitzu eta unitate administrazioak izango dira prozedura tramitatu eta ebazteko 130. artikuluan aipatzen diren organo eskudunak.

Pertsona fisikoen ondorengoen aurrean zergak biltzeak dagokionez, bilketa borondatez ordaintzeko epea amaitu aurretik egiten denean, likidazioak egiteko eskumena duten zerbitzu eta unitate administrazioak izango dira prozedura tramitatu eta ebazteko 133. artikuluan aipatzen diren organo eskudunak.

Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen ondorengoen aurrean zergak biltzeari dagokionez, bilketa borondatez ordaintzeko epea amaitu aurretik egiten denean, likidazioak egiteko eskumena duten zerbitzu eta unitate administratiboak izango dira prozedura tramitatu eta ebazteko 134. artikuluan aipatzen diren organo eskudunak.

Hamabosgarrena.

V. tituluan aipatzen den zergabilketa organoa edo organo eskuduna Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendaritza Nagusiko Zergabilketa Unitatea dela ulertuko da.

Xedapen indargabetzailea.

Foru agindu honetan jasotakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak indarrrik gabe geratzen dira, eta bereziki, honako hauek: Abuztuaren 18ko 915/2004 Foru Agindua, Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiko organoen artean eskumenak banatzekoa, bigarren xedapenari eta hirugarren xedapenaren bigarren paragrafoari dagokienez.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau 2006ko urriaren 5ean jarriko da indarrean.

Donostia, 2006ko irailaren 25a.—Juan Jose Mujika Aginagalde, Departamentuko foru diputatua.

(6956) (9900)